

## Nafarroa. Urte larri on 0-3an

Urtarrilaren 9an EH Bilduk PSN interpelatu zuen 0-3 haur hezkuntzaren zikloaren harira. Modu honetan, alderdi politiko ezberdinek beraien ideiak argudiatu zituzten, maila diskurtsibo batean.

Hezkuntza Kontseilari berriak hobekuntza batzuk aurkeztu zituen, hauek ez dira nahikoa eta beste partxe bat bezala ikusten ditugu. Hobekuntzak, ongi etorriak, baina, epe luzeko helburua betetzeko ibilbidea zehaztea eskatzen diegu.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloak kudeaketa komun eta publikoa behar du, eta horretara iristeko azalpen antolatuak eta aztertuak eskatzen ditugu.

STEILAS sindikatutik argi dugu: Haur Hezkuntzako Lehenengo Zikloa

- Hezitzailea
- Publikoa eta kudeaketa publikokoa
- Doakoa
- Unibertsala
- Elebiduna

STEILAS sindikatuak Nafarroako 0-3 Plataformarekin batera ezinbestekoak diren bi aldarrikapen ekarri ditugu kalera:

- Ratioen jaitziera urgente bat behar dugu, gaur egungoak arriskutsuak eta jasangaitzak direlako. Europako Batzordearen Haurtzaroren Arreta sareak gomendatzen dituenak (ditugunaren erdia) betetzea eta eskoletako elkarbizitza jasanezin eta arriskutsuei bukaera emateko. Modu honetan adin horren berezko ezaugarriak errespetatu ahal izango ditugu.
- Profesionalen soldataren igoera: Nafarroan lan berdinatik ez da soldata berdina jasotzen, nahiz eta haur eskola guztiak publikoak izan.

Aipatutako hauek ezinbesteko ardatzak dira kalitateaz eta irizpide pedagogikoetaz hitz egin ahal izateko. Zoritxarrez, Bilkuran ez zaie tarterik eman, "ratioak malgutu ditugu" esan du Kontseilariak honen esanahiaren azalpenik gabe.

Alderdi politiko gehienak zikloaren homogeneousazioaren alde daudela ez da momentuko berria. Helburu honetara iristeko proposamenak dira espero ditugun berriak.

Eskubide Sozialetako Departamentuaren menpe modu anakroniko batean dauden zazpi haur eskola horiek Hezkuntza Departamentuaren menpe aspaldi beharko zuten izan. Oraingoan Kontseilariak jarri dituen trabei aurre eginez hau bideratzen bada, gainontzeko haur eskolen kudeaketa Hezkuntza Departamentuaren menpekora izateko bideari ekingo diote.